

## **NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUAREN GOMENDIOAK, LAN EREMUAN MASKAREN ERABILERA EZARTZEKO (2022ko apirilaren 20a)**

Apirilaren 19ko 286/2022 Errege Dekretuak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdian maskarak erabiltzeko betebeharra aldatu du. Bertan jasotzen den bezala, oraindik COVID-19a gure artean egon arren, biztanleriak immunitate-maila handia lortu du, gehienek txertoak jarri dituztelako eta askok infekzioa jasan dutelako. Testuinguru horretan, infekzioaren ondoriozko konplikazioengatik ospitaleratzeko arriskua txikiagoa da. Horregatik, etapa honetan, zaintza epidemiologikoak pertsona eta ingurune kalteberetan jartzen du arreta.

Lan ingurunean maskarak erabiltzeari dagokionez, aipatutako errege dekretuak ezartzen du maskarak nahitaez erabili behar direla eremu hauetan:

- a.- Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetan, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen baimenak emateko oinarri orokorrak finkatu zituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Beraz, langile, bisitari eta pazienteek maskara erabili beharko dute, beren gelatik irten gabe ospitaleratuta daudenak izan ezik.
- b.- Zentro soziosanitarioetan, langileek eta bisitariak erabili beharko dute, eremu partekatuetan badaude.
- c.- Aireko, trenbideko edo kable bidezko garraiobideetan eta autobusetan, bai eta bidaiarien garraio publikoetan ere. Ontzi eta itsasontzien gune itxietan, 1,5 metroko distantziari eustea ezinezkoa bada. Geletan ez da erabiliko, barruan elkarrekin bizi direnak baino ez badaude.

Bestalde, gomendatzen da langile kalteberak arduraz jokatzeko eta maskara erabiltzeko norbaitekin 1,5 metrotik beherako distantzian egon behar dutenean luzaroan.

Hauek dira talde kalteberak: 60 urte edo gehiagoko pertsonak, arrazoi intrintsekoagatik edo estrintsekoagatik immunodeprimituak daudenak eta haurdunak.

Aipatutako eremuetan izan ezik, lan ingurunean, oro har, ez da nahitaezkoa izan maskara erabiltzea. "Nolanahi ere, lanpostuko arriskuen ebaluazioarekin bat etorriz, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arduradunek lanpostuan edo lantokietako espazio jakin batzuetan ezarri beharreko prebentzio neurri egokiak zehazten ahalko dituzte, maskarak erabiltzeko aukera barne, ebaluazio horretatik hala ondorioztatzen bada".

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuak jarraibide batzuk helarazi nahi dizkie enpresei eta langile autonomoei, kontuan har ditzaten.

Pandemiaren hasieratik jakinarazi dugun bezala, uste dugu antolaketako eta babes kolektiboko neurriak (adibidez, aireztapena) batera betetzeak infekzioaren transmisioa minimizatzen duela lan ingurune gehienetan.

Esperientziak erakutsi digu gaixotasuna kutsatzeko arrisku handiagoa dagoela erabilera komuneko eremuetan (jantokiak, atsedenlekuak, aldagelak, erretzeko guneak) eta langileak batera garraiatzen dituzten ibilgailuetan.

Hilabete hauetan ikusi dugunez, zenbait antolaketa neurriak infekzio arriskua murrizten dute, hala nola edukiera murrizteak, lantokira sartzean eta/edo hortik irtetean pilaketak saihestea, jarduerak kanpoan sustatzea (atsedenaldiak, erretzea, etab.), lantokian pertsona arteko distantzia handitzeak eta aireztapen egokia bermatzea.

Faktore horiek kontuan hartuta, lan eremu bakoitzean erabakitzen ahalko da maskarak "nahitaez erabili behar ez izatea", maskararen erabilera "gomendagarria/arduratsua" egitea, edo lanpostu jakin batzuetan maskarak "nahitaez" erabili behar izatea, egoerak askotarikoak direla kontuan hartuta:

- Barruko airearen aireztapen eskasa espazio itxietan.
- Pertsonen arteko segurtasun-tarteari (1,5 m) eusteko ezintasuna.
- Jendearentzako arreta, oro har.
- Espazio komun erabilera, hala nola aldagelak, jangelak, bilera-gelak eta abar, okupazio mailaren eta egonaldiaren arabera.
- Pertsona kalteberak egotea.

Horri dagokionez, Osasun Ministerioak *SARS-CoV-2 birusa aerosolen bidez transmititzeko arriskuaren ebaluazioa. Prebentzio neurriak eta gomendioak* izeneko dokumentu teknikoa argitaratu zuen 2020ko azaroan (erantsi da).

Dokumentu horren arabera, kutsapen arriskua handitu egingen litzateke honako faktore hauen arabera:

- Aireztapenik eza barneko giroetan.
- Pertsonen arteko distantzia murriztea.
- Pertsona kopuru handia espazio berean.
- Jarduera fisiko handia.

Aerosol bidezko kutsapen arriskuaren kategorizazio kualitatiboa emisio handiagoari lotutako jardueren, eragin-aldiaren, espazio ireki edo itxian egotearen (ongi edo gaizki aireztatua) eta maskararen erabilaren arabera da, eta 1. irudian laburbiltzen da. Dokumentua osorik irakurtzea gomendatzen da; izan ere, irudian deskribatutako informazioan ez dira aipatzen pertsonen arteko distantzia, kutsapen komunitarioaren maila eta norberaren sentikortasuna, nahiz eta horiek ere kontuan hartu beharreko faktoreak izan. "Kategorizazio hori lagungarria izan daiteke lantokian maskara erabiltzeari buruzko erabaki egokia hartzeko".

Maskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko erabakia, halaber, lantokietako aireztapen baldintzak egiaztatzean oinarritu liteke, eta horietatik ondorioztatu liteke maskararen erabilera dela...

- “Ez beharrezkoa”, 700 ppm-tik beherako CO<sub>2</sub> kontzentrazioak dituzten lanpostu edo geletan
- “Gomendagarria”, 700 ppm-tik gorako eta 800 ppm-tik beherako CO<sub>2</sub> kontzentrazioak dituzten lanpostu edo geletan
- “Nahitaezkoa”, 800 ppm-tik gorako CO<sub>2</sub> kontzentrazioak dituzten lanpostu edo geletan

Enpresetan eta Administrazioetan, arriskuak ebaluatzeko, zuzendaritzako arduradunen, erdi-mailako arduradunen eta langileen edo haien ordezkarien iritzia jaso behar da.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu, dokumentu horretan ondorioztatzen den bezala, “SARS-CoV-2 birusaren transmisioa saihesteko prebentzio neurriek prebentzio eta babes neurrien estrategia konbinatua ezarri behar dutela, halako moduan non neurri bat baino gehiago batera erabiliz infekzio arrisku txikiagoa baitago”.

**1. irudia.** Aerosol bidezko kutsapenaren arrisku kualitatiboaren kategorizazioa hainbat agertokitan, gela motaren, bildutako pertsona kopuruaren, maskararen erabileraren (mota zehaztu gabe) eta bileran egindako jardueren arabera.

Número de personas y actividad de grupo	Baja ocupación			Alta ocupación		
	Exterior	Interior bien ventilado	Interior mal ventilado	Exterior	Interior bien ventilado	Interior mal ventilado
<b>Con mascarilla, contacto durante poco tiempo</b>						
En silencio	Green	Green	Green	Green	Green	Yellow
Hablando	Green	Green	Green	Green	Green	Yellow
Gritando, cantando	Green	Green	Yellow	Yellow	Yellow	Red
<b>Con mascarilla, contacto durante mucho tiempo</b>						
En silencio	Green	Green	Yellow	Green	Yellow	Red
Hablando	Green	Green	Yellow	Yellow	Yellow	Red
Gritando, cantando	Green	Yellow	Red	Yellow	Red	Red
<b>Sin mascarilla, contacto durante poco tiempo</b>						
En silencio	Green	Green	Yellow	Yellow	Yellow	Red
Hablando	Green	Yellow	Yellow	Yellow	Red	Red
Gritando, cantando	Yellow	Yellow	Red	Red	Red	Red
<b>Sin mascarilla, contacto durante mucho tiempo</b>						
En silencio	Green	Yellow	Red	Yellow	Red	Red
Hablando	Yellow	Yellow	Red	Red	Red	Red
Gritando, cantando	Yellow	Red	Red	Red	Red	Red

Berdea: arrisku txikia; horia: arrisku ertaina; gorria: arrisku handia  
 Iturria: Moldatua: Jones (70)